


BAKEAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2015

Irailaren 21ean



BAKEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
2015eko irailaren 21ean

Munduko gatazken
ondorioak zuzenean
sufritzen dituzten
pertsonek erretratuak

 Gatazketarako bitartekaritza zentroa
Centro para la mediación y regulación de conflictos

 www.bakeola.org



Hutsaren hurrengoak

SARRERA

Bakerako hezi..

Johan Galtung soziologoak dioten bezala, ohituta gaude bakea gerrarik eza gisa ulertzera, baina orduan bakeari esanahi negatiboa ematen diogu. Galtungek bereizten ditu, batetik, indarkeria zuzena, agerikoa, eraso fisikoen bidez adierazten dena, eta, bestetik, egiturazko indarkeria, ikusezina, zapalkuntzazko gizarte-egiturek sortzen dutena: langabezia, miseria, desberdinkeria, bazterketa, etab.

Indarkeria zuzenik ezak *bakearen kontzeptu negatiboa* dakar; aldiz, egiturazko indarkeriarik ezak bake-kontzeptu positiboa dakar. Eskema hori eskala lokal nahiz eskala globalean aplika daiteke; premia gorrian dauden talde zanpatuak dauden lekuan, egiturazko indarkeria egongo da, indarkeria zuzenaren hazia (pobretutako familiak, auzo marjinalak, baztertutako ghettoak, etab.); munduko aginteak planeta desoreka larria duten herrialde aberats eta txiroen artean banatzen baldin badu, gerrak eta basakeriazko ekintzak agertuko dira.

Indarkeriaren kultura nagusi izatea baldin badugu abiapuntu, bakearen kultura bat eskuratzeko beharrezkoa da, pixkanaka, indarkeriazko egiturak bakezko egiturekin ordeztea. *Transarme* deituriko prozesu hori ez da nazioarte mailan soilik martxan jarri behar, baita tokian-tokian ere. Izan ere, transarme prozesu bati ekiten diogu gatazkak indarkeriarik gabe konpontzen diren taldeetan lan egiten dugunean, erabakiak modu kolektiboan hartzen direnean, herriaren parte-hartzea kontuan izaten denean, tolerantzia eta solidaritatea praktikatzen ditugunean eta, azken batean, **bakerako heziketaren** arauak garatzen ditugunean.

Hutsaren hurrengoak...

Kanpaina honetan "Hutsaren hurrengoak" erretratuak izango ditugu ardatz, munduko gatazken ondorioak, zuzenean, jasaten dituzten pertsona eta kolektibo horienak. Sufrimendu horri aurpegia jarri nahi diogu; ahulagoak diren pertsonen eta kolektiboen errealitate ezagutu, ametsak eta bizi-proiektuak zapuzteko zorian dituzten horiek, gu guztion aitortza eta ikusgai bihurtzea merezi baitute.

Gainera, kanpaina honen bidez, ez dugu soilik ezagutzen eta hausnarketan geratu nahi, ekintzak eta jarrerak planteatu nahi ditugu tokian-tokian, mundu mailako gauzak aldatzeko.

Kolektibo eta pertsona ahulenen errealitatea erakutsi: immigranteak, gutxiengo zapalduak, errefuxiatutako pertsonak, emakumeak eta haurrak.



Honako proposamen pedagogiko honek sail didaktiko bat du, mundu mailako gatazken alderdiak ezagutzeko eta horien ondorioei buruz hausnarketa egiteko.

HELBURUAK

- Mundu mailan dauden gatazken ondorioei buruzko hausnarketa egitea.
- Munduko gatazken ondorioak modu krudelenean sufritzen dituzten pertsona eta kolektiboen egoeraren kontzientzia hartzea.
- Justizia oinarri duten bakea eraikitzeke erlazioak sortzeko beharrezko jarrerak aztertzea.

HARTZAILEAK

- Ikastetxeak.
- Aisialdi-taldeak.
- Biztanleria, oro har.

METODOLOGIA

Proposatzen dugun metodoa aktiboa, lankidetzazkoa eta bizipenezkoa da (norbere esperientziaz abiatzen da).

Kanpainako ekintzak guztiak egin daitezke edo bakoitza modu independentean, horietako bakoitzak zentzua baitu bere horretan.

1. JARDUERA: "BUDA EXPLOTÓ POR VERGÜENZA"

DEFINIZIOA

Zinemaren laguntzaz, nazioarteko gaurkotasuna ulertzea Giza Eskubideak abiapuntu izanik.

HELBURUAK

- Gatazkan dauden herrialdetako biztanleriak bizi dituen desberdinkeriazko, gizarte-bidegabekeriak eta indarkeriazko egoerak ezagutzea.
- Gerren ondorioak zein diren eta haurren bizitzan nola eragiten duten hausnartzea.

PARTAIDEAK

Taldea – 12 urtetik aurrerako ikasgelak.

MATERIALA

DVDa eta kanoia

GARAPENA


Jarduerari ekiteko "Buda explotó por vergüenza" filma ikusiko dugu.

Horren ostean, ikusi dugunari buruzko eztabaida bat sortuko da azterketarako urratsen laguntzarekin.

SINOPSISIA

Talibanek suntsitutako Budaren estatuaren azpian, oraindik ere milaka familia bizi dira.

Baktay sei urteko neskatila afganiar bat da; arreta handiz begiratzen dio Abbas bizilagunari, irakurketa-ariketak egiten ari den horri. Neskatoak ere eskolara joan nahi du irakurtzen ikastera, baina koadernoak eta arkatza behar ditu. Horiek lortzeko oztopoz betetako bide luzea egingo du. Eskolara bidean, mutiko batzuei egin beharko die aurre; haiek, helduen portaera integristak errepikatzen dituzte, eta eraso egiten diote gerra-jolasean ari diren bitartean. Eskolara iristea ez zaio batere erraza gertatuko, eta lortutakoan, azkenean, emaitza desilusionagarria izango da.



Eztabaidarako galderak

- Filmean, zerk harritu zaituzte gehien?
- Eskolara joatea da Baktayren irrika eta filmaren oinarria. Zergatik da hain garrantzitsua protagonistaren hezkuntza?
- Zein dira eskolara bidean topatzen dituen oztopoak?
- Zer rol du emakumeak Afganistanen? Ikusten duzu alderik gizon eta emakumeen artean?
- Zure ustez, emakumeek indarkeria jasaten duten Afganistanen? Zergatik? Zure erantzuna baiezkoa bada, zer motatako indarkeria gertatzen da?
- Aurkitu duzu desberdintasunik Afganistango eta hemengo neska-mutilen artean?

ITURRIA

<http://www.cineddhh.org/guias-didacticas/buda-exploto-por-vergüenza/i-introduccion/#g>

2. SAIOA: KUBOEN DINAMIKA

DEFINIZIOA

Kartulinazko kuboak egotea baldintza ezberdinak izanik

HELBURUAK

- Ekonomikoki herrialde garatuetan eta garatzeke daudenen artean dauden harremanak aztertu
- Nazioarte mailako elkarteek dituzte politikek eragiten duten harremanak baloratu

PARTAIDEAK

12 urtetik aurrera

MATERIALA

Kartulinak 18, guraizeak 4, zuzenkiak 3, arkatzak 3, zeloa ugari, folioak, talde bakoitzeko boligrafo bana, arbela eta klera

ABIAPUNTUKO ARAUAK

Talde handia 4 talde txikitan banatu behar da hasieratik. 2 boluntario aukeratu Nazio Batuen arduradun gisa eta talde bakoitzeko behatzaile bat

Behatzaileen lana: bere taldean egon isilik (ezingo du hitz egin); bertan entzun eta gertatutakoak orrian idatzi ahal izango dute. Ordezkaria NBE joaterakoan ere, bere ondoan joan daiteke behatzera baina beti ere isilik.

GARAPENA

Talde bakoitzak ahal duen kubo gehien egin behar ditu. Kubo bakoitzak 8 zm izan behar ditu alde bakoitzeko eta Nazioa Batuetako ordezkariak emango diote edo ez beren oniritzia. Noski, kuboek baldintza hori bete beharko du onartua izan dadin. Eta bestalde... lege berriak atera ahala, kuboei exijentzia gehiago erantsi dakieke Nazioarteko erakundeak (naturaren eragindako fenomenoek ez dute kuboak desegin behar-haizeak, urakanak, euriak, kazkabarrak,... uretan ez da hautsi behar, pisu zehatz bat mantentzeko gai izan behar du).

Jolasaren hasieran talde bakoitzeko ordezkaria Nazio Batuetako Elkarteak (NBE) mahaira joango da eta han dagokion materiala jasoko du (herrialde bakoitzari dagokion kopurua). Ordezkaria hauek izango dira beti ere, NBE gerturatuko direnak.

	Materia prima (Kartulinak)	Ezagutzak (zuzenki+arkatzak)	Teknologia (Guraizeak)
1.taldea	2	3	1
2.taldea	1	3	3
3.taldea	7	-	-
4.taldea	8	-	-

Dinamikaren iraupena 25-35 minutu bitartean izango da. Kuboa egin ahala, NBE joan behar da bertan onetsi edo baztertuko baitute kuboa (une horretan "Legeek"-arauek eskatzen dituzte baldintzen arabera).

Beste aukera bat: Kuboak egin beharrean kateak osatzea izan daiteke bestelako aukera bat MILPA elkartearen proposamena jarraikiz.

EBALUAZIOA

Nola sentitu zarete (taldekide bakoitzak alde batetik, taldeko ordezkariak bereziki, behatzaileak bestetik eta NBE ordezkariak bestetik)? Berdina al da talde batekoa edo bestekoa izatea? Nola sentitu zarete egoera horren aurrean? nola jokatu duzue rol bakoitzeko ordezkariak? Zer gertatu da orokorrean? Egoera bidezkoa al da? Zer egin daiteke egoera aldatzeko? Errealitate hau eguneroko bizitzan gertatzen da? Noiz? Zer egin daiteke?

ITURRIA

<http://www.amnistiacatalunya.org>

3. SAIOA: HOMOFOBIA

Homofobia, giza talde hauen aurkako gorroto, beldur, aurreiritzi eta bazterkeria irrazionala da:

- Emakume eta gizon homosexualak.
- Homosexualekin batera, aniztasun afektibo-sexuala osatzen duten beste gutxiengoak: bisexualak eta transexualak (horrelakoetan *transfobia* eta *bifobiaz* ere hitz egiten dugu).
- Norberaren aurkako sexuarekin erlazionatu ohi diren jarrerak edo/eta ohiturak dituzten pertsonak, adibidez, metrosexualak eta "luma" dutenak.

Ondorengo mapamundian, margotu alboko herrialdeak, berdez lehenengo multzokoak (1), eta gorri bigarren multzokoak(2):

(1) Homosexualek gainontzeko hiritarren eskubide berdinak dituzten lurraldeak:

1. Argentina
2. Belgika
3. Espainia
4. Hegoafrika
5. Herbeherak
6. Islandia
7. Kanada
8. Mexiko
9. Norvegia
10. Portugal
11. Suedia

(2) Homosexualei heriotz zigorra ezartzen dietenak:

1. Iran
2. Mauritania
3. Saudi Arabia
4. Sudan
5. Yemen
6. Nigeria
7. Somalia

GARAPENA



MARGOTU GABEKO GAINONTZEKO HERRIALDEETAN EZ DAGO BERDINTASUNIK, ETA ASKOTAN HOMOSEXUALEN AURKAKO LEGEAK DITUZTE !


LEGEAK BERDINTZEN BAGAITU ERE,
EGUNEROKOTASUNEAN,
HOMOFOBIA GURE ARTEAN DAGO

Aurreko mapa margotuta, ohartuko zinen gay-ek eta lesbianek zein herrialde gutxietan lortu duten berdintasuna beste herritarrekiko. Eta hala ere, gurean ere, berdintasuna lortu duten beste herrialdeetan bezala, inkestek eta azterketek diote berdintasun soziala ez dela lortu, ezta gure ikastetxeetan ere; batez ere, ikastetxeetako patioak, ez dira toki seguroak lgtb gazteentzat.

Ziur zure inguruan ere, ikastetxean, kalean, ... , jarrera homofoboek lekuko izan zarela, beheko bokaketan aurki ditzakezun hainbaten antzekoak, edo bestelakoak. Ia gai zareten hutsik dauden bokatak zuen inguruan emandako jarrera homofoboekin betetzen:



Aurreko orrialdeko bokatetatik zure inguruan gehien ematen diren 2 jokabide aukeratu:

A large, empty rectangular box with a light blue background and a thin blue border, intended for the user to write their answers.

Orain, bukatzeko, denen artean aukeratutako jokabide homofobo horiek ondorengo taulan laburbildu itzazue, eta bukatzeko, talde bakoitzak horietako ezberdin bat edo bi aukeratu eta irakasleak emandako karteletan idatziko ditugu.

ADI EGON !



... LOKABÍDEA HOMOFOBIA DA STA MÍN SMATEN DU !

ITURRIA

<http://gehitu.org/somos-gehitu/dias-destacados-gehitu>

4. JARDUERA: JOANGO GARA ESKOLARA?

HELBURUAK

- Alfabetizazio kontzeptua eta horrek pertsonen garapenean duen balio ulertzea.
- Munduan emakumeek duten analfabetismo-egoera ezagutzea, eta errealitate hori aldatzeko beharraren kontzientzia hartzea.

TESTUINGURUA

Hezkuntza giza eskubide bat da, eta ezinbesteko elementua, ekonomiak eta gizarteak aurrera egiteko. Aitortu behar da hezkuntzan berdintasun-baldintzatan sartzeari funtsezkoa dela emakumea indartzeko eta tresna ezinbestekoa genero-berdintasuna, garapena eta bakea nahiz antzeko helburuak eskuratzeko.

Alfabetizazioa tresna boteretsua da emakumearen garapena, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna eta genero femeninoaren ongizate ekonomiko, familiarreko, sozial eta psikologikoa lortzeko. Oinarrizko giza eskubidea izateaz gain, alfabetizazioa ezinbesteko baliabidea da beste eskubide funtsezko batzuk baliatzeko.

Desberdintasunik gabeko alfabetatutako mundu batean, pertsona guztiek eskolara joateko aukera edukiko lukete, eta egoera erabat desberdina izango litzateke. **Hezkuntzak berekin dakar bakea, segurtasuna, enplegua, osasun-zerbitzuak, berdintasuna, eskubideak, oparotasuna, etorkizuna.**

Analfabetismo sozial eta ekonomikoaren eraginari buruzko Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoaren (CEPAL) txosten batek gogora dakarkigu aldi berean gertatutako hainbat faktoreren ondorio dela hori: txirotasuna, desnutrizioa, osasun-arazoak, haurren lana, migrazioa eta irakaskuntza eta ikaskuntza jarraitura sartzeko aukerarik eza. "Desberdinkeria horiek -adierazi du- pertsonen gizarte-ahultasunean eragina dute. **Ikasketarik ez duenak aukera gehiago du "arriskua, segurtasunik eza eta babesgabetasuna" sentitzeko.**

Hainbat herrialdeetako alfabetizazio-tasa baxuek hori sortu duten arrazoiei buruzko jakin-mina piztu beharko lukete. Azken batean, **sarritan,**

analfabetismo-zifren atzean goseteak, epidemiak, gatazkak eta desberdinkeriak egon ohi dira.

JARDUERAREN GARAPENA

Ikasgela 3 pertsonako taldetan banatuko dugu, eta talde bakoitzari testigantza bat emango diogu. Pertsona bakoitzak kasu bat irakurriko du, eta gainerako kideei azalduko die. Taldeak hiru istorioen arteko puntu komunak eta desberdinak adierazi behar ditu. Ondoren, kasuak alderatzean ateratako alderdi harrigarri edo txundigarrienak jakinaraziko dizkie gainerako taldeei, eta denen artean gogoeta egingo dute.

Alderatu Fatu, Fao- Fang fabrikako langile eta Mende Nazer protagonisten egun arrunt bat zure egunerokotasunarekin. Apuntatu alderdi garrantzitsuenak.

FATUREN ISTORIA (ZAMBIA)

Fatu egunero joaten da eskolara etxeko lanak egin ostean. Ama, Patricia, egur bila joaten da, eta Fatuk eta anaiak oiloei jaten ematen die eta ur bila joaten dira. Horretarako, goiz jaiki behar izaten dute, bestela ez dira eskolara garaiz iritsiko. Eskolan lurrean eseri behar izaten dute, han ez baitago aulkirik; norberaren koaderno oso ondo zaintzen dute, eta arreta handia jartzen diote irakasleak esaten duenari. Irakaslea ezin da beti joan, borondatezko langilea baita. Gobernuak ezin die herrialdeko irakasle guztiei ordaindu. Fatuk ibaiari begiratzen dionean, egoera aldatu egingo dela amesten du. Eguzkia nola sartzen den ikusteko Zambeze ibaiaren ertzean esertzea da Faturi gehien gustatzen zaiona. 13 urte ditu, eta bidaiatzea eta beste herrialde batzuk ezagutzea amesten du. Badaki irakurtzen eta idazten ikasteak eta matematiketan erraztasuna edukitzeak bizimodua aldatzen lagunduko diola, eta bizitza hobea eskura dezakeela Fatuk nahiz haren herriak.

FAO-FANG FABRIKAKO LANGILEAK

Hondurasen ia 90.000 pertsonak lan egiten dugu fabriketan, eta gehienak emakume eta gazteak gara (16 eta 18 urte bitartekoak). Horrexegatik eman ziguten lanpostua; oraindik gazteak garelako eta nagusiek esaten dutelako emakumeek ez dugula hainbeste arazo ematen ez gaudelako ohituta gure eskubideak aldarrikatzera eta gure artean antolatzen. Gainera, gazteak gara, eta hori oso positiboa da haientzat, nagusiak lehen egunean esan zigun bezala “helduago bagina, ezingo baikenioke erritmoari eutsi”.

Gure fabrika zementuzko hormak eta uralitazko teilatua duen bodega handia da, fabrikako nagusiak Hondurasko enpresa-gizon ezagun bati erositakoa. Ez dago ia leihorik; barruko beroa jasanezina da, eta lanean ari garen eguneko 12 ordu baino gehiagotan ez dugu edateko urik, ezta atsedeen hartzeko aukirik ere. Pizgarri bakarra da, guretzat, nekazaritza-gunean, gure ingurunean, ezingo genukeela fabriketan irabazten dugun dirua eskuratu, eta denok dugu gure ekarpen ekonomikoaren zain dagoen familia bat. Iluntzean, fabrikatik etxera itzultzen naizenean, txikitan eskolara joan banintz nire bizitza nolako izango zatekeen pentsatzen dut.

Lan duin bat eskuratzeko aukera eta fabrikako langile gisa ditudan eskubideen berri izango nuke, baita mobilizatzeko gaitasun handiagoa ere fabrikako langile guztien lan-baldintzak hobeto dituzaten eskatzeko. Etxera itzultzean, amets egiten dut egunen batean helduen prestakuntzarako eskolara joango naizela; modu horretan, nire eskubideak zein diren jakiteko eta garapen pertsonal hobea edukitzeko aukera izango dut.

MENDE NAZER, SUDAN.

Mende Nazer izenak “gazela” adiera du jatorrizko hizkuntzan; egun, haurrek lan egitearen aurka lan egiten duen emakume heldua da. Nuba mendietan jaio zen, Sudan hegoaldean. 13 urte zituen 1994ko gau batean, denak lo zeuden bitartean, hainbat gizon laban eta pistolaz lagunduta haren herrixkan sartu zirenean.

Familiak babesten zituzten aitak akabatu zituzten; emakumeak eta haurrak, bahitu, eta herria suntsitu zuten. Haur horien artean zegoen Mende; modu basatian bortxatu zuten.

Handik gutxira, Mende Sudango hiriburuko, Jartumgo, familia aberats bati saldu zioten, eta esklabo izan zen zazpi urtez. Han, estalpe hotz eta zikin batean, giltzapean eta zarpailez jantzita egiten zuen lo. Egunean 18 ordu lan egiteko ateratzen zen soilik, eta janari-hondarrekin elikatzen zen. ‘Yebit’ deitzen zioten, literalki, ‘izenik edukitzea merezi ez duen neskatila’ esan nahi duen arabiar irain krudela, eta tratu txarrak ohikoa ziren.

2000 urtean, nagusiak Londresera bidali zuen Sudango diplomatiko batekin ezkondu zegoen ahizparengana. Han, Mendek, bertako hizkuntza ezagutzen ez zuen arren, denda batean bere hizkuntza hitz egiten zuen norbait entzun zuen; horri esker, bere kasua kontatu eta salatu zuen. Istorio hark inpaktu handia eragin zuen Erresuma Batuan, eta Damien Lewis kazetariarekin batera idatzitako ‘Esklaboa’ liburuan kontatu ahal izan zuen.

ALFABETATZEA MUNDUAN

Honako irudi hau ikusita, munduko alfabetatzeari buruzko azterketa bat egitea planteatzen zaie ikasleei.

- *Zer herrialdek dute analfabetismo-tasa handiena?*
- *Zer herrialdek dute alfabetizazio-indize handiena?*
- *Zer erlazio du analfabetismoak herrialde baten ekonomiarekin?*
- *Ikusten duzu alderik gizonen eta emakumeen artean?*
- *Zer ekarpen egiten dio oinarrizko hezkuntzak pertsonen bizitzari?*

5. JARDUERA: ZER EGIN DEZAKEGU?

HELBURUAK

- Egoera bidegabeen aurrean jarrera hartzen ikastea.

IRAUPENA

30 minutu.

TESTUINGURUA

“Sistema” gisa ezagutzen duguna hainbat erakunde eta jarrerek irudikatutako engranaje askoz osatutako makineria handi bat da: estatua, armada, nazioarteko burtsa, merkatua, hezkuntza, gobernuak, espekulazioa, etab. Makinaria hori behar bezala dabil engranajeak lubrifikatzen dituen olio berezi bati esker: gure konformismoari esker, alegia. Hala ere, makinaria hori une batetik bestera eten ezin dela badakigun arren, gure esku dago polikiago edo okerrago ibiltzea, behin betiko gelditu arte. Horretarako harri-txintxarrak jar ditzakegu engranajeetan.

JARDUERAREN GARAPENA

Gure aurrean, panel batean, makinaria baten engranajeak bailiran, hainbat jarrera eta erakunde agertuko dira; horiek ez dute modu eraikitzaile batean bakea eraikitzen edota gatazkak konpontzen uzten (maila mikro-sozialean eta makro-sozialean).

Partaide bakoitzak engranajeetan “ziriak” sartu beharko ditu makineria gelditzeko; ziri horietan agertuko dira justizia oinarri duten bakea eraikitzeko beharrezko erlazioak.



AZTERKETARKO URRATSAK

Zaila gertatu zaizu makinaria gelditzen laguntzeko jarrera edo ekintzak topatzea?

Zuen ustez, denon artean egin dezakegu zerbait maila lokalean (eskala txikian) horrek mundu mailan zerbait aldatzen lagun dezan?

Praktikara eraman ditzakegu proposatu dituzuen ekintza eta jarrerak?

Bakea eraikitzen duten jarrerak direla iruditzen zaizue?

ITURRIA

“Mundu Ahaztuaren Geografia” erakusketa. Chema Álvarez.

Engranajeak	Harri-txintxarrak
<p>Arma-salerosketa Militarismoa Komunikabideen manipulazioa Kontsumismoa Esplotazioa Arrazakeria eta intolerantzia Indibidualismoa Merkatua Desideologizazioa Sexismo, homofobia, matxismoa Ingurumenaren degradazioa Lehiakortasuna Globalizazio ekonomikoa Demagogia Espekulazioa Desberdinkeria Zapalkuntza Gerrak Kanpoko Zorra Finantza-erakundeak Multinazionalak Pentsamendu bakarra</p>	<p>Zerga-objekzioa Desobedientzia zibila Informazioa alternatiboa Kontsumo kritiko, bidezko eta solidarioa Salaketa Baloreen heziketa Kolektibotasuna Trukea Irakurketa, pentsamendua Hezikidetzeta eta afektibitate- eta sexu- heziketa Ekologismoa Lankidetzeta Presio-neurriak, bidezko trukea Herriaren partaidetzeta eta antolakuntza Herriaren kontrola Berdintasuna, parekotasuna Askatasuna, senidetasuna Indarkeriarik eza Abolizioa, bidezko merkataritza Boikota GKE-etan parte hartzea Pentsamendu kritikoa Bakezaletasuna Konpromiso solidarioa Kontzientzia kritikoa Feminismoa Beste batzuk.</p>

HARREMANETARAKO

Edozein zalantza edo galdera egiteko,

Bakeola

Gatazketarako bitartekaritza zentroa

LAN TALDEA:

IRANTZU AURREKOETXEA PEREZ
MAIDER MARTIARENA ARRASTUA
ROCIO SALAZAR TORRE

EDE Fundazioa

Simon Bolivar 8b, 48010 Bilbao



94 400 99 99



www.bakeola.org



bakeola@bakeola.org



<https://www.facebook.com/Bakeola>



<http://www.twitter.com/bakeola>



<http://www.youtube.com/bakeola>



<http://www.scribd.com/bakeola>